




EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN MERKATURATUTAKO ZURAREN LEGEZKOTASUNA KONTROLATZEKO ESKUALDEKO PROGRAMA

Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak 2023ko maiatzean Gasteizen onartua.

AURKIBIDEA:

1. SARRERA.....	4
2. ERREFERENTZIAZKO ARAUDIA.....	4
3. DEFINIZIOAK ETA TERMINOAK.....	5
4. ESKUALDEKO KONTROL PROGRAMAREN HELBURUAK.....	5
4.1. Kontrolen subjektua.....	5
4.2. Kontrolen xedea.....	6
4.3. Euskal Autonomia Erkidegoko eragileen identifikazioa.....	7
4.4. Euskal Autonomia Erkidegoan egin beharreko kontrolen kopurua, agenteen eta merkatarien konfiantza-mailaren arabera.....	7
4.5. Agenteen eta merkatariei egin beharreko kontrolen lurralde- banaketarako irizpideak.....	8
5. EUTR KONTROLAK PLANIFIKATZEA ETA EGITEA – ARRISKUEN ANALISIA.....	9
5.1. Euskal Autonomia Erkidegoan zura eta zuraren produktuak merkatutzen dituzten agente eta merkatarien konfiantza-maila ebalutzeko irizpideak eta parametroak.....	9
5.2. Informazio interesgarria eta kezka frogatuak.....	10
5.3. Agenteen eta merkatarien gaineko kontrolak planifikatzeko eta egiteko irizpideak.....	11
5.4. Ikuskapen-erakundeen gaineko kontrolak planifikatzeko eta egiteko irizpideak.....	12
6. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ESKUALDEKO KONTROL PROGRAMA.....	13
6.1. Egin beharreko kontrolak planifikatzeko kontuan hartuko diren irizpideak.....	13
6.2. Kontrolen prozedurak.....	14
6.3. Urtero egingo diren kontrolen kronologia.....	14
6.4. Aldizkako eguneratzeak.....	14
7. KONTROL-PROZEDURA GARATZEA, NEURRI ZUZENTZAILEAK EZARTZEKO PROZEDURAK, BEHIN-BEHINEKO NEURRIAK ETA EGON DAITEZKEEN ERREKURTSOEN EBAZTEA.....	15

 <p>EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN MERKATURATUTAKO ZURAREN LEGEZKOTASUNA KONTROLATZEKO ESKUALDEKO PROGRAMA</p>	Orrialdea: 3 de 17
	Edizioa: 0
	Data: 2023ko maiatza

1. SARRERA

Indarrean dagoen Merkaturatutako Egurraren Legezkotasuna Kontrolatzeko Plan Nazionalean ezarritakoaren arabera, legez kanpoko mozketak zuraren merkataritza globalaren % 30 inguru da. Gainera, jatorrizko herrialdeetako zergetan galerak eragiten ditu, eta Munduko Bankuak 10-15 mila milioi dolar estatubatuar inguru kalkulatzen ditu urtero. Legez kanpoko aprobetxamenduaren ehunekoa % 50etik gorakoa da herrialde tropikaletan jatorria duten zuren kasuan.

Legez kanpo aprobetxatutako zura merkaturatzeak, beste faktore batzuekin batera, basoak deforestatzeko eta degradatzeko prozesuan laguntzen du.


Ondorio horiek saihesteko, EBk Europar Batasunaren FLEGT Ekintza Plana (Legeak aplikatzea, gobernantza eta baso-merkataritza) ezarri zuen, 2003an onartua. Ondoren, bi erregelamendu onartu ziren: FLEGT Erregelamendua 2005ean, eta, horren osagarri, 2010ean EUTR Erregelamendua onartu zen.

Azken arau horren helburuetako bat, oro har, legez kanpoko jatorria duen zura Europar Batasuneko merkaturatzea debekatzeaz gain, «agentea» delakoari behar bezalako arretaren sistema bat garatzeko eskatzea da, egur horren legezko jatorria ziurtatuko duena. Halaber, produktuaren trazabilitatea hornidura-kate osoan ziurtatzeko, «merkatariek» produktua zer beste pertsona fisiko edo juridikori erosi edo, hala badagokio, saldu dioten identifikatzeko aukera izan behar dute.

Estatuan, abenduaren 4ko 1088/2015 Errege Dekretua, zuraren eta zuraren produktuen merkaturatzea legezkoa dela bermatzeko dena (aurrerantzean, Errege Dekretua) da legez kanpo aprobetxatutako zuraren merkataritzaren aurka borrokatzeko beharrezko araudia ezartzen duena.

Agintari eskudunek ziurtatu behar dute betebeharrak horiek betetzen dituztela, eta, besteak beste, kontrolak egingo dituzte agenteek eta merkatariek beren betebeharrak betetzen dituzten egiaztatzeko. Arauak adierazten du, halaber, kontrolak plan baten arabera egingo direla, eta plan hori aldian-aldian berrikusiko dela, arriskuan oinarritutako irizpideen arabera.

Errege Dekretu horrek ezartzen duenez, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren (MITECO) Biodibertsitaterako, Basoetarako eta Desertifikaziorako Zuzendaritza Nagusia da estatu-mailako agintaritza eskuduna, eta, ondoren, Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailaren Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritza izendatzen da autonomia-erkidegoko agintaritza eskudun gisa.

 <p>EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO</p> <p>IKONOMIAAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE</p>	EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN MERKATURATUTAKO ZURAREN LEGEZKOTASUNA KONTROLATZEKO ESKUALDEKO PROGRAMA	Orrialdea: 4 de 17
		Edizioa: 0
		Data: 2023ko maiatza

2. ERREFERENTZIAZKO ARAUDIA

- FLEGT Ekintza Plana, Europar Batasuneko “Basogintzako Lege, Gobernantza eta Merkataritza Erabilera”ri buruzkoa, 2003an onartua.

- Kontseiluaren 2173/2005 (EE) Erregelamendua, 2005eko abenduaren 20koa, Europako Erkidegoan zur-inportazioei aplikatu beharreko FLEGT lizentzia-sistema bat ezartzeari buruzkoa (FLEGT Erregelamendua ere esaten zaio). Erregelamendu hori geroago garatu zen Batzordearen 1024/2008 (EE) Erregelamenduaren bidez eta Europako Batzordearen Komunikazioan aduanekiko betearazpen-jarraibideekin. Aduanas & FLEGT. Aplikatzeko jarraibideak (2020/C 20/01).

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010eko urriaren 20ko 995/2010 (EB) Erregelamendua (EUTR Erregelamendua). Oinarritzko erregelamendu honen irismena eta aplikazioa ondorengo hauen bidez arautu da:

* Batzordearen, 2012ko otsailaren 23ko, 363/2012 (EB) Erregelamendu eskuordetua, 995/2010 (EB) Erregelamenduan jasotako ikuskapen-erakundeak aintzatesteko eta aintzatespena kentzeko prozedura-arauei buruzkoa.


* Batzordearen 607/2012 (EB) Betearazpen Erregelamendua, 2012ko uztailaren 6koa, 995/2010 (EB) Erregelamenduan jasotako ikuskapen-erakundearen gaineko kontrolen maiztasunari eta izaerari eta behar bezalako arretaren sistemari buruzko arau zehatzei buruzkoa.

* EUTR zuraren araudiari buruzko orientazio-dokumentua (2016) 755

- 43/2003 Legea, azaroaren 21koa, Mendiena (uztailaren 20ko 21/2015 Legeak aldatua).

- 1088/2015 Errege Dekretua, abenduaren 4koa, zuraren eta zuraren produktuen merkaturatzearen legezkotasuna ziurtatzekoa.

- 338/97 (EE) Erregelamendua, 1996ko abenduaren 9koa, basoko fauna eta florako espezieak babesteari buruzkoa.

 <p>EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO</p> <p>EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE</p>	EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN Merkaturatutako Zuraren Legezkotasuna Kontrolatzeko ESKUALDEKO PROGRAMA	Orrialdea: 5 de 17
		Edizioa: 0
		Data: 2023ko maiatza

3. DEFINIZIOAK ETA TERMINOAK

Merkaturatzea: Zuraren edo zuraren produktuen hornidura, ordaindua edo doakoa, eta lehen aldiz barne-merkatuan, merkataritza-jarduera batean banatzeko edo erabiltzeko.

Agentea: EBko barne-merkatuan egurra edo zuraren produktuak lehen aldiz merkaturatzen dituen edozein pertsona fisiko edo juridiko.

Merkataria: Edozein pertsona fisiko edo juridiko, baldin eta, merkataritza-jarduera batean, barne-merkatuan egurra edo dagoeneko merkaturatutako zuraren produktuak saltzen edo erosten baditu.

Behar bezalako diligentzia: Europar Batasuneko merkatuan sartuko den zurak legezko jatorria duela ziurtatzeko prozedura sorta.

Ikuskapen-erakundeak: Europar Batasunean legez ezarrita eta baimenduta dauden pertsona juridikoak, arreta egokiko sistema erregulartasunez mantendu eta ebaluatuko dutenak; sistema hori erabiltzeko eskubidea emango dietenak agenteei; behar bezala erabiltzen dela egiaztatuko dutenak; eta neurri egokiak hartuko dituztenak, agente batek bere sistema behar bezala erabiltzen ez badu.


4. ESKUALDEKO KONTROL PROGRAMAREN HELBURUAK

Eskualdeko Kontrol Programa (EKP) Kontrol Plan Nazionalaren (KPN) arabera egiten da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko agenteei urtero egin behar zaizkien kontrolak antolatzeko eta planifikatzeko oinarri izango da.

Tresna hau bat dator plan horretan ezarritako irizpide orokorrekin, eta egurraren lantaldean EKPak egiteko hartutako jarraibideekin bat, eta merkatuaren egoeretara egokituko da, beharrezkoa den heinean.

4.1. Kontrolen subjektua

Zuraren merkataritzaren legezkotasun-arloko betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko kontrolak hainbat subjektuen gainean egingo dira. Subjektu hauek dira izen soziala Euskal Autonomia Erkidegoan duten eta EUTR Erregelamenduak estaltzen dituen zurarekin edo eratorritako produktuekin (1088/2015 Errege Dekretuaren III. eranskinean jasota daudenak) merkataritza egiten duten agenteak eta merkatariak.

 <p>EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO</p> <p>IKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA</p> <p>DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE</p>	EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN MERKATURATUTAKO ZURAREN LEGEZKOTASUNA KONTROLATZEKO ESKUALDEKO PROGRAMA	Orrialdea: 6 de 17
		Edizioa: 0
		Data: 2023ko maiatza

Errege Dekretu horren II. Eranskinean agenteen tipologiak ezartzen dira. Tipologia horiek irizpide batzuen bidez definitzen dira, eta irizpide horien oinarria agenteak merkatuan egurra edo aprobetxamendu-herrialdeko arauak urratu dituzten zuraren produktuak sartu ahal izatea da.

EUTR Agente moten kategoriak, ezaugarrien arabera

INPORTATZAILEA Hirugarren herrialdeetako produktuak	3 AGENTE Bolumenaren %70 zaiontza-katearen ziurtagiriarekin
	4 AGENTE Bolumenaren <%70 zaiontza-katearen ziurtagiriarekin


INPORTATZAILEA/BASO- ERREMATATZAILEA Estatuko edo EBko herrialdeetako aprobetxamendu zuzena	Mendi propioa	AGENTE 1.1 baso-kudeaketa iraunkorra (BKI) ziurtagiria dutenak
		AGENTE 1.2 BKI ziurtagiria ez dutenak
	Inoren mendia	AGENTE 2.1 Bolumenaren %70 zaiontza-katearen ziurtagiriarekin
		AGENTE 2.2 Bolumenaren <%70 zaiontza-katearen ziurtagiriarekin

4.2. Kontrolen xedea

Egin beharreko kontroletan egiaztatu behar da bai agenteek bai merkatariek EUTR arloan aplikatu beharreko araudiak ezartzen dituen betebeharrak betetzen dituztela.

Agenteek, egurra (edo haren produktu eratorriak) legez kanpo ez merkaturatzeko betebeharrak gain, honako hauek ere egin behar dituzte:

- Urtero, martxoaren 31 baino lehen, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztea, aurreko urtean Batasuneko merkatuan lehen aldiz sartu diren

 <p>EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO</p> <p><small>EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA</small></p> <p><small>DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE</small></p>	<p>EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN MERKATURATUTAKO ZURAREN LEGEZKOTASUNA KONTROLATZEKO ESKUALDEKO PROGRAMA</p>	Orrialdea: 7 de 17
		Edizioa: 0
		Data: 2023ko maiatza

EUTR produktuekin.

- Behar bezalako Arreta Sistema bat izatea, hau da, Batasuna edo haren produktu deribatuak merkaturatu aurretik agenteek aplikatu beharreko prozeduren eta neurrien esparru bat, produktu horien hornidurari buruzko informazioa eskuratzea erraztuz. Sistema hori idatzizko dokumentu batean jaso behar da, Batasuneko merkaturan legez kanpoko egurra sartzeko arriskua aztertu eta ebaluatzeko, eta, hala badagokio, antzemandako arriskuak minimizatzeko.
- Hala badagokio, kontrola egin duen agintaritza eskudunak aldeztu aurretik ezarritako neurri zuzentzaileak benetan ezarri izana.

Merkatariek beren produktuen trazabilitatea frogatzeko betebeharra dute. Horretarako, beren zuzeneko hornitzaileen erregistroak eduki behar dituzte, eta, hala badagokio, EUTR produktuak zuzenean hornitzen dizkieten beste merkataritza batzuenak (ez azken kontsumitzaileenak), gutxienez bost urtez.

Agenteek eta merkatariek, gainera, agintari eskudunei kontrolak behar bezala egiten laguntzeko betebeharra dute.

4.3. Euskal Autonomia Erkidegoko agenteen identifikazioa

EUTR galdetegian Euskal Autonomia Erkidegoak emandako informazioa, erantzukizunpeko adierazpenak aurkeztu dituzten 1. eta 2. agenteen kopurua eta Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren (ZAEA) Aduanen eta Zerga Berezien Sailak EUTR produktuen inportazioei buruz emandako datuen tratamendua oinarri hartuta, Euskadik honako agente-kopuru hau duela kalkulatu da:

AUTONOMIA-ERKIDEGOAK	INPORTATZAILEAK	ETXEKOAK	GUZTIRA
Euskadi	856	44	900

4.4. Euskal Autonomia Erkidegoan egin beharreko kontrolen ehunekoak, agenteen eta merkatarien konfiantza-mailaren arabera

Euskal Autonomia Erkidegoan egin beharreko kontrolen guztizko kopurua ezartzeko, bi irizpide erabiltzen dira: agenteek autonomia-erkidego honetan duten garrantzi erlatiboa eta eragile-mota bakoitzaren konfiantza-maila.

Alde batetik, etxeko agenteentzat konfiantza-maila handia dutela uste da, jarduera oso araututa baitago autonomia-erkidego honetan.

Eragile horien garrantzi erlatiboa eta konfiantza-maila zehazteko ezar daitezkeen irizpideen artean, erantzukizunpeko adierazpena aurkezteak erakusten du enpresa horiek beren betebeharrak betetzen ari direla, eta aurkezten ez dutenak oso konfiantza-maila baxuarekin identifikatzen dituztela.

Bestalde, agente inportatzaileei dagokienez, zuraren eta haren produktu eratorrien inportazioen garrantzia zehazteko, arriskua handitzen dela uste da, eta, beraz, konfiantza-maila txikiagoa izango dute honako kasu hauetan:

- I. Behin baino gehiagotan inportatu dute denbora tarte batean.
- II. Inportatutakoak balio jakin bat gainditzen du (10.000 €)
- III. Produktu bat baino gehiago inportatzea
- IV. Produktu horiek hirugarren herrialde esportatzaile batekoak baino gehiagokoak badira.


Lurraldearen berezko ezaugarriak eta agente mota bakoitzaren garrantzi erlatiboa eta konfiantza-maila kontuan hartuta, ezartzen da kontrolen % 10 inguru 1. eta 2. agenteen gainean egin behar dela, eta % 90 3. eta 4. agenteen gainean.

4.5 Agenteen eta merkatarien gainean egin beharreko kontrolak banatzeko irizpideak

Euskal Autonomia Erkidegoan egin beharreko kontrolen banaketa ezartzeko, gure erkidegoan dauden agenteen garrantzi erlatiboa haztatuko da, baita agente horiek merkatuan aprobezko herrialdeko arauak urratu dituzten egurra edo zuraren produktuak sartzeko arriskua ere.

Premisa honetan oinarritzen dira: zenbat eta agente gehiago eta sektoreak lurraldean duen garrantzi erlatiboa, orduan eta probabilitate handiagoa dago araua ez betetzeko, eta, beraz, orduan eta kontrol-premia handiagoa dago.

- I. Etxeko agenteei aplikatu dakizkiekeen banaketa-irizpideak (1 eta 2)
 - a) Aitortutako produktuaren kantitateak. Aurreko urteetan aurkeztutako erantzukizunpeko adierazpenen datuetatik eta informazio publikoko beste iturri batzuetatik ateratako informazioa.
 - b) Dauden agenteen kopurua.
- II. Agente inportatzaileei aplikatu dakizkiekeen banaketa-irizpideak (3 eta 4)
 - a) Euskadiko zurezko produktuen inportazioen balioa eta

	EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN Merkaturatutako Zuraren LEGEZKOTASUNA KONTROLATZEKO ESKUALDEKO PROGRAMA	Orrialdea: 9 de 17
		Edizioa: 0
		Data: 2023ko maiatza

- inportatzaileen kopurua.
- b) Autonomia-erkidego honetan dauden aduanak adierazten dituzten enpresen kopurua.

III. Merkatariei aplikatu beharreko banaketa-irizpideak.

- a) Autonomia-erkidegoaren arabera 16. kategoriako (zuraren eta kortxoaren industria, altzariak izan ezik; saskigintza eta espartzugintza), 17. kategoriako (paperaren industria) eta 31. kategoriako (altzarien fabrikazioa) EJSN kodeen arabera erregistratutako enpresen kopurua.

Beraz, Euskal Autonomia Erkidegorako kontrolak agente motaren arabera honela banatzen dira:

INPORTATZAILEAK	ETXEKOAK	MERKATARIAK	ALDAKORRAK	KONTROLAK GUZTIRA
11	2	1	3	17

5. EUTR KONTROLAK PLANIFIKATZEA ETA EGITEA ARRISKUAREN ANALISIA

5.1. Euskadin zura eta zuraren produktuak merkaturatzen dituzten agente eta merkatarien konfiantza-maila ebaluatzeko irizpideak eta parametroak

Irizpide eta parametro horien helburua da oinarri bat ematea Euskal Autonomia Erkidegoko agintaritzak eskudunak arriskua ebaluatu eta kontrolatu beharreko agente eta merkatarien hautaketa egin dezan.

Irizpideak eta parametroak honela antolatu dira:

I. Mota guztietako agenteentzako irizpideak:

- Erantzukizunpeko adierazpenaren aurkezpena eta edukia:
Agente batek aurkeztutako erantzukizunpeko adierazpenaren datuak ez aurkeztea (Ministerioak emandako Euskadiko inportatzaileen zerrendaren arabera) edo, hala badagokio, egiazkoak ez izatea.
- Zuraren lantaldearen jarraibideak/jarraibideak:
Zuraren lantaldeak jatorrizko herrialdeen, produktuen, espezieen, esportatzaileen, hornitzaileen eta abarren arriskuei buruz helarazitako ondorioak edo txostenak.


- Europar Batasuneko taldeek EUTR eta FLEGTri buruz emandako oharrak:
Europar Batasuneko aditu-taldeek EUTR edo FLEGTi buruz helarazitako ondorioak edo txostenak, jatorrizko herrialdeen, produktuen, espezieen eta abarren arriskuei dagokienez.
- Ikuskapen-erakunde baten pean behar den arreta erabiltzea:
Irizpide horrek onartzen du agente batentzako konfiantza-maila handiagoa izango dela gainbegiratze-erakunde batek proposatutako eta berrikusitako sistema baten bidez behar bezalako arreta erabiltzen duenean, Europako Batzordeak ofizialki aintzatesten baititu ebaluazio-prozesu zorrotz baten ondoren.
- Merkaturatutako produktuaren izaera:
Izan ere, merkaturatutako produktuaren eraldaketa zenbat eta handiagoa izan, orduan eta luzeagoa da hornidura-katea, eta, beraz, zailagoa da haren legezko jatorria ziurtatzea.
- Merkaturatutako produktuaren pisua eta balio erlatiboa:
Interesgarriagozat jotzen baita produktu gehien merkaturatzen duten agenteen gaineko kontrola. Era berean, interes berezia dutelako, balio handiko produktuak hartuko dira kontuan, hala nola zur tropikalak.

Agente mota guztien konfiantza-maila ebaluatzeko kontuan har daitezkeen beste irizpide batzuk:

- Beste agintaritza eskudun batzuek emandako informazioa.
 - Baso-kudeaketa jasangarriaren (BKJ) edo zaintza-katearen (ZK) ziurtagiriak izatea.
 - Merkatuen analisia.
 - Arau-hausteen, zehapenen eta behin eta berriz egindako salaketen erregistro historikoa.

II. Etxeko agenteentzako irizpide espezifikoak:

- Kudeaketa-plan bat edo tresna baliokide bat izatea:
Kudeaketa-plana edo tresna baliokidea duten baso-azaleren gainean egiten diren zur-aprobetxamenduek legezkotasun-

 <p>EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO</p> <p>EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE</p>	EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN MERKATURATUTAKO ZURAREN LEGEZKOTASUNA KONTROLATZEKO ESKUALDEKO PROGRAMA	Orrialdea: 11 de 17
		Edizioa: 0
		Data: 2023ko maiatza


berme handiagoak dituzte.

III. Agente inportatzaileentzako irizpide espezifikoak:

- Agenteari, hornitzaileari edo jatorrizko herrialdeari buruzko hirugarrenen txostenak:
Hirugarrenek emandako informazioak, behar bezala arrazoituta, egiaztatuta eta jakinarazita, arriskua behar bezala ebaluatzeko oso interesgarriak diren datu zehatzagoak izan ditzake.
- Produktuaren jatorria/aprobetxamendu-herrialdea:
Produktuaren edo aprobetxamendu-herrialdearen konfiantzari buruzko informazioa ematen duten indize batzuk daude, hala nola:
 - Nazioarteko Gardentasuna (Transparency International) erakundeak urtero egiten duen ustelkeriaren pertzepzio-indizea (CPI: Corruption Perception Index).
 - Jatorrizko herrialde edo eskualde bateko gatazka armatuaren nagusitasun-indizea Bakerako Fundazioak (The Fund for Peace) urtero egiten duen Estatuaren Hauskortasun Indizea (FSI: Fragility States Index) erabiltzea gomendatzen da.
- Jatorrian legez kontrakotasun-arriskua ebaluatzea:
Ukitutako zurezko produktuen jatorrizko herrialdeen legez kanpoko arriskua ebaluatzerantz bideratuta dago. Azterketa hori hirugarrenek emandako herrialdeko arriskuari buruzko informazio-iturrietan oinarritzen da, hala nola gainbegiratze-erakundeak edo NBEak.
- Inportatu beharreko espezieak:
Legez kontrakotasun-arriskua zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa izan daiteke aintzat hartutako espeziearen interes komertziala, edo zenbat eta lege-murrizketa gehiago izan merkaturatzeko.

5.2. Informazio interesgarria eta kezka justifikatuak

Egurra eta legez kanpoko jatorriko zuraren produktuak merkaturatzeko arriskua zehazteko, oso garrantzitsua da hirugarrenek emandako informazioa kontuan hartzea. Informazio-iturri horiek nazioarteko erakundeak, gobernu-iturriak,

 <p>EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO</p> <p>EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE</p>	EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN MERKATURATUTAKO ZURAREN LEGEZKOTASUNA KONTROLATZEKO ESKUALDEKO PROGRAMA	Orrialdea: 12 de 17
		Edizioa: 0
		Data: 2023ko maiatza

enbaxadak, gizarte zibileko erakundeen txostenak, argitalpen akademikoak, sektoreko berriak eta abar izan daitezke.

Era berean, bereziki garrantzitsua da justifikatutako kezken bidez emandako informazioa.

Kezka justifikatutzat jotzen da pertsona edo erakunde batek araudiaren arau-hausteak izan daitezkeen egoeren berri ematen dienean gertakariak gertatzen ari diren autonomia-erkidegoko edo autonomia-erkidegoetako EUTR administrazio eskudunei.

EUTRek, zuraren Europako Erregelamenduak, garrantzi berezia ematen die mota horretako komunikazioei, eta, beraz, kontuan hartu eta ebaluatu behar dira zer ekintza diren egokiak administrazioari jakinarazi zitzaizkion unean emandako informazioaren arabera, eta horiek ahalik eta modu arduratsuenean egingo dira.

5.3. Agente eta merkatarien gaineko kontrolak planifikatzeko eta egiteko irizpideak

I. Kontrolen izaera eta plangintza:

a) Kontrolen izaera.


Agentei eta merkatariari egin beharreko kontrolak dokumentuak izan daitezke, batez ere bide telematikoz, edo aurrez aurreko ikuskapenak in situ.

Agenteak edo merkatariak emandako dokumentazioa berrikusiko da, agintaritza eskudunak eskatuta. Beharrezkoa izanez gero, dokumentazio hori hirugarrenek emandako beste informazio batekin osa daiteke.

Hirugarren herrialdeei informazioa eskatu behar bazaie, Espainiako foku-puntu nazionalari eskatuko zaio hirugarren herrialdeko foku-puntu nazionalarekin harremanetan jar dadila informazio hori eskatzeko.

Betetze-kontrolak honako hauek barne hartu ahal izango ditu:

- Behar bezalako arretaren sistema (BAS) aztertzea, arriskuak ebaluatzeko eta arintzeko prozedurak barne.
- Behar bezalako arretaren sistemak eta prozedurek era zuzenean funtzionatzen dutela frogatzen duten agiriak eta erregistroak aztertzea.
- Ausazko kontrolak egitea, landa-auditoriak barne.
- Erantzukizunpeko adierazpenaren azterketa.

 <p>EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO</p> <p><small>EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA</small></p> <p><small>DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE</small></p>	<p>EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN MERKATURATUTAKO ZURAREN LEGEZKOTASUNA KONTROLATZEKO ESKUALDEKO PROGRAMA</p>	Orrialdea: 13 de 17
		Edizioa: 0
		Data: 2023ko maiatza

Informazioa eztaba daezina ez denean edo inkongruentziak agertzen direnean, informazio edo dokumentazio osagarria eskatuko da, eta, beharrezkoa bada, bisitak edo ikuskapenak egingo dira in situ, informazio gehiago lortzeko.

b) Kontrolak planifikatzea eta egitea:

Eskualde Programa honetan adierazitako arrisku-irizpideek arautuko dute kontrolen plangintza, arrisku handiena detektatu zaien agenteetatik hasita.

Pareko arrisku-maila duten agenteen kasuan, beste faktore garrantzitsu batzuk hartuko dira kontuan. Halaber, epe ertain eta luzerako kontrolak behar bezala planifikatzeko, kontuan hartu beharko da egindako azken kontrolatik igarotako denbora.

II. Euskal Autonomia Erkidegoko agintaritza eskudunak egindako kontrolei buruzko erregistroa eta informazioa.

Agintari eskudunek egindako kontrolak erregistratzea eta horiei buruzko informazioa estatuko agintaritza eskudunari helaraztea oso garrantzitsua da EUTR Erregelamendua behar bezala inplementatzeko eta araudia betetzeko.


Gainera, kontrolen erregistroak gorde beharko dira, kontrolen izaera eta emaitzak adieraziz, bai eta egindako neurri zuzentzaileen jakinarazpenak ere. Gutxienez bost urtez gorde behar dira erregistroak.

Era berean, agenteen edo, hala badagokio, merkatarien gainean egindako kontrolen berri emango zaio urtero estatuko agintaritza eskudunari.

Informazioa EUTR aplikazioaren bidez helaraziko da, eta LIGNUM informazio-sisteman EUTR Erregelamenduaren inplementazio-datuak aurkeztuko dira.

5.4. Gainbegiratze-erakundearen gaineko kontrolak planifikatzeko eta egiteko irizpideak

Agenteek behar bezalako arreta izan dezakete ikuskapen-erakunde baten pean, Eskualdeko Kontrol Programa honen aurreko ataletan adierazi den bezala. Erakunde horiek, Europako Batzordeak halakotzat aitortuak, erregulartasunez mantentzen eta ebaluatzen dute dagokion agentearentzat behar den arreta-sistema, eta erabiltzeko eskubidea ematen diote.

 <p>EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO</p> <p><small>EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA</small> <small>DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE</small></p>	<p>EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN MERKATURATUTAKO ZURAREN LEGEZKOTASUNA KONTROLATZEKO ESKUALDEKO PROGRAMA</p>	Orrialdea: 14 de 17
		Edizioa: 0
		Data: 2023ko maiatza

Aplikatzekoa den araudiak ezartzen duen bezala, agintari eskudunek 995/2010 (EB) Erregelamenduaren 8. artikuluko 4. paragrafoan aipatzen diren kontrol erregularrak gutxienez bi urtean behin egiten direla zainduko dute.

Agintaritza eskudun horrek kontrolak egingo ditu gure lurraldean jarduten duten ikuskapen-erakundeen gainean, erakunde horiek ezarritako funtzioak eta betekizunak betetzen dituztela zehazteko. Horretarako, gainbegiratze-erakunde batek autonomia-erkidego baten lurraldean jarduten duela ulertuko da gainbegiratze-erakunde horren bidez behar bezalako arreta-sistema garatzen duen agente batek egoitza soziala autonomia-erkidego horren lurraldean duenean.

Gainbegiratze-erakundeen kontrola egingo da egoitza soziala edo fiskala autonomia-erkidego jakin batean duten agenteen % 0,5a gutxienez zerbitzua ematen dieten erakundeetan.

Nabarmendu behar da, eskualdez gaindikoak direnez, kontrolak Estatuko agintaritza eskudunarekin koordinatuta egingo direla, bai eta ikuskapen-erakunde horrek egoitza soziala duen autonomia-erkidegoko organo eskudunarekin koordinatuta ere.


6. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AGINTARITZA ESKUDUNAREN ESKUALDEKO KONTROL-PROGRAMA EZARTZEA

Dokumentu hau Euskal Autonomia Erkidegoko agintaritza eskudun honek urtero egin behar dituen kontrolak antolatzeko eta planifikatzeko oinarria da.

6.1. Egin beharreko kontrolak planifikatzeko kontuan hartuko diren irizpideak honako hauek dira:

Agente inportatzaileei 11 kontrol egiteko:

- Produktuaren jatorria/aprobetxamendu-herrialdea:
Jatorrizko herrialde edo eskualde bateko gatazka armatuaren nagusitasun-indizea Bakerako Fundazioak (The Fund for Peace) urtero egiten duen Estatuen Hauskortasun Indizea (FSI: Fragility States Index) erabiltzea gomendatzen da.
- Inportatu beharreko espezieak:
Legez kontrakotasun-arriskua zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa izan daiteke aintzat hartutako espeziearen interes komertziala, edo merkaturatzeko zenbat eta lege-murrizketa gehiago izan, orduan eta

 <p>EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO</p> <p>EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE</p>	EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN Merkaturatutako ZURAREN LEGEZKOTASUNA KONTROLATZEKO ESKUALDEKO PROGRAMA	Orrialdea: 15 de 17
		Edizioa: 0
		Data: 2023ko maiatza

handiagoa.

- Jatorrian legez kontraktasun-arriskua ebaluatzea:
Ukitutako zurezko produktuen jatorrizko herrialdeen legezkotasunik ezaren arriskua ebaluatzerantz bideratuta dago. Azterketa hori hirugarrenek emandako herrialdeko arriskuari buruzko informazio-iturrietan oinarritzen da, hala nola gainbegiratze-erakundeak edo NBEak.
- Erantzukizunpeko adierazpenaren aurkezpena eta edukia:
Agente batek aurkeztutako erantzukizunpeko adierazpenaren datuak ez aurkeztea (Ministerioak emandako Euskadiko inportatzaileen zerrendaren arabera) edo, hala badagokio, egiazkoak ez izatea.

Etxeko agenteei 2 kontrol egiteko:

- Erantzukizunpeko adierazpenaren aurkezpena eta edukia:
Agente batek aurkeztutako erantzukizunpeko adierazpenaren datuak ez aurkeztea edo egiazkoak ez izatea.
- Kudeaketa-plan bat edo tresna baliokide bat izatea:
Kudeaketa-plana edo tresna baliokidea duten baso-azalaren gainean egiten diren zur-aprobetxamenduek legezkotasun-berme handiagoak dituzte.

Antzeko arrisku-maila duten agente mota bietan, beste faktore garrantzitsu batzuk hartuko dira kontuan. Hau da, epe ertain eta luzerako kontrolak behar bezala planifikatzeko, egindako azken kontroletik igarotako denbora hartuko da kontuan.


Merkatarien kontrola egiteko:

- Merkatutatutako produktuaren izaera:
Zenbat eta handiagoa izan merkatutatutako produktuaren eraldaketa-prozesua, orduan eta luzeagoa da hornidura-katea, eta, beraz, zailagoa da haren legezko jatorria ziurtatzea.
- Merkatutatutako produktuaren pisua eta balio erlatiboa:
Interesgarriagozat jotzen da produktu gehien merkatutzen duten merkatarien gaineko kontrola, eta, beraz, haien balioa ere handiagoa izatea.

6.2. Kontrolen prozedurak

a) Agenteei, etxekoei zein inportatzaileei, egin beharreko kontrolak dokumentu moten eta in situ presentzialen arteko konbinazio bat izango dira.

b) Merkatariei egin beharreko kontrolak dokumentalak izan daitezke, batez ere

 <p>EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO</p> <p>EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE</p>	EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN MERKATURATUTAKO ZURAREN LEGEZKOTASUNA KONTROLATZEKO ESKUALDEKO PROGRAMA	Orrialdea: 16 de 17
		Edizioa: 0
		Data: 2023ko maiatza

bide telematikoz, baldin eta aurkeztutako dokumentazio/informazio guztia bat badator. Hala ez bada, kontrol presentziala egingo da in situ.

6.3. Urtero egingo diren kontrolen kronologia

Kontrol Plan Nazionalean Euskal Autonomia Erkidegoko agintaritza autonomikoari esleitutako kontrolak urtero egingo dira.

6.4. Aldizkako eguneratzeak


Beharrezkoa izanez gero, Kontroleko Erregio Programari eragin diezaiokeen edozein zirkunstantziagatik, inguruabar horiek programa horretan eragina izan dezaketen aldaketak egingo dira.

7. KONTROL-PROZEDURA GARATZEA, NEURRI ZUZENTZAILEAK EZARTZEKO PROZEDURAK, BEHIN-BEHINEKO NEURRIAK ETA EGON DAITEZKEEN ERREKURTSOAK EBAZTEA

1. Egin beharreko kontrolak planifikatzeko kontuan hartu beharreko irizpideak aplikatzen dira.
2. Operadorearen jarduera identifikatuz hasten da kontrol-prozedura, agentea edo merkataria den berezita.
3. Operadore mota identifikatu ondoren, agenteen eta merkatarien betebeharrak kontrastatzen dira.
4. Kontrola egiteko beharrezkoa den informazioa/dokumentazioa eskatzen da. Beharrezkoa bada, agintaritza eskudunak kontrola egiteko beharrezkotzat jotzen duen informazio/dokumentazio osagarri guztia eskatuko da.
5. Egin beharreko kontrol mota aukeratzen da.
6. Kontrola in situ egingo dela jakinarazten da, honako informazio honekin: eguna eta ordua, lekua, esku-hartzaileak, kontrolaren xedea, etab.

Kontrolatu beharreko zurezko produktuen espezie botanikoak kontrastatzea beharrezkotzat jotzen den kasuetan, laginak hartu ahal izango dira erreferentziako laborategietara bidaltzeko, deklaraturako espezieak berresteko.

7. In situ egindako kontrolaren kontrol-akta egin eta interesdunari emango zaio.

 <p>EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO</p> <p>EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE</p>	EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN MERCATURATUTAKO ZURAREN LEGEZKOTASUNA KONTROLATZEKO ESKUALDEKO PROGRAMA	Orrialdea: 17 de 17
		Edizioa: 0
		Data: 2023ko maiatza

8. Aipatutako puntu guztiak egiaztatu ondoren, eta kontrol-txostena behar bezala bete eta itxi ondoren, txosten horren edukia EUTR aplikazio informatikora bidaliko da, emaitza hauetako batekin:

- Ados; agenteak betebeharrak guztiak betetzen dituzten.
- Ez ados; agenteak bere betebeharrak betetzen ez dituzten.
- Ez dator bat neurri zuzentzaileekin; zuzendu beharreko desadostasunak antzematen direnean. Kasu horretan, neurri zuzentzaileen jakinarazpena egingo da.

9. **Neurri zuzentzaileak** ezarri badira, eta horiek zuzentzeko egokitzen jotzen den epea igaro ondoren, ikuskatzaileak beste kontrol bat egin beharko du txosten berria "Ados" edo "Ez ados" gisa jaso beharreko emaitza argi batera iristeko, agenteak edo merkatariek bere betebeharrak betetzen dituen kontuan hartuta.

10. Agintaritzak eskudunak beharrezkotzat jotzen dituen **behin-behineko neurriak** ezarri ahal izango ditu, Mendiei buruzko azaroaren 21eko 43/2003 Legearen eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen ezarritakoaren arabera, bai eta administrazio eskudunak beren eskumenetan oinarrituta ezar dezaketen beste edozein neurri ere.

11. Betebeharren bat betetzen ez bada, edo agenteek eta merkatariek kontrolatan laguntzarik ematen ez badute, Mendiei buruzko 43/2003 Legearen 67.r) artikuluan halakotzat tipifikatutako arau-haustea egin ahal izango da, eta hala jakinarazi beharko zaio instrukzioaz arduratzen den agintaritzari.

12. Agintaritzak instrukzio-egileak, agintari eskudun autonomikoek edo zentralek hala eskatuta, urtero eman beharko du izapidetutako administrazio-espeditenteen emaitzen berri, agintari eskudunak egindako ikuskapenetan oinarrituta.

Zehapen-araubidea Mendiei buruzko 43/2003 Legearen VII. tituluan jasota dago.

Espedienteak izapidetzeko eta ebazteko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea aplikatuko da.